

## ARENE (Eritasun Neuromuskularren Arabako Elkartea)



Vicente Abreu Margolariaren kalea, 7  
945 200 836  
[contacto@arene.es](mailto:contacto@arene.es) / [www.arene.es](http://www.arene.es)

**ARENE** elkartea irabazi asmorik gabeko elkartea da, eta gaixotasun neuromuskularrak jotako pertsonen eta haien senideen kezka bultzatuta sortu zen. Gaixoen nahiz haien senideen bizi-kalitatea hobetzeko elkartzea erabaki zuten.

Gaixotasun neuromuskularrak **gaixotasun genetikoak dira, gehienetan hereditarioak, eta muskulaturari eta nerbio-sistemari eragiten diete**. Miopatia izenez ere ezagutzen dira. Elkartean era guztietako jarduerak antolatzen dira: kulturalak, aisialdi eta denbora librekoak, informatiboak, laguntza psikologikoa, orientazio soziala.

Helburu hauek ditu, besteak beste: gaixotasun neuromuskularren ikerketa eta tratamendua sustatzea; kaltetuak eta senideak elkartzea, helburu komunak lortzeko topaguneak eta lantaldeak sortuz; gaixotasunari buruzko informazioa ematea; iritzi publikoa sentsibilizatzea gaixotasunak dakartzan arazoei buruz; helburu bera duten erakundeekin lankidetzan aritzea eta boluntarioen laguntza eta babesa bideratzea.

# Fundación Vital Fundazioaren lankidetzak

Areneretik lankidetzak 2001ean hasi zen Vital Kutxako Gizarte Ekintzatik, prestakuntza-, dibulgazio- eta prebentzio-programak babesteko hitzarmen bat sinatuta. Lankidetzak horri eutsi zaio Gizarte Ekintza Vital Fundaziotik kudeatzen denetik.

Urte hauetan zehar, elkarteari laguntzen jarraitu da, urteroko hitzarmen bat sinatuz, besteak beste, prestakuntza-, prebentzio- eta hedapen-programak eta familiarakoekin eta gaixoekin gizartearen esku hartzeko programak babesteko. Honako hauetan ere hartu dugu parte: isio-errehabilitazio programak, boluntariorikoa programa, aisialdi eta denbora librerako programa.